# Diasgnostikoa eta aurreproiektua
Sintesi dokumentua

# Diagnóstico y anteproyecto
Documento síntesis

Baztan
**Hobetzen**

Baztango herriguneetarako
**Hiri Jarduketarako Plan Berezia**

Baztango
Udala

paisaje transversal
escuchar y transformar la ciudad

## **Planaren faseak** Fases del Plan

### 1.

**Analisi eta informazioa**

**1.** Egungo egoeraren analisia

**2.** Hirigintza determinazioen analisia

**3.** Parte Hartze prozesua

### 2.

**Diagnostikoa eta aurreproiektua**

**1.** Diagnostiko integrala

**2.** Parte Hartze prozesua

**3.** Aurreproiektua eta antolamendu alternatibak

### 3.

**HJPB izapidetze-dokumentua**

### 4.

**HJPB-aren izapidetze eta onespena**

Alegazio txostena eta Behin-betiko dokumentua

# 01. Partze-hartze analisia Análisis participativo

## + Materialak eta komunikazio-kanalak eratzea
## Creación de materiales y canales

*https://baztanhobetzen.baztan.eus/*




## + Prozesua abiaraztea
## Lanzamiento del proceso





## + Enkarrizketak funtsezko eragileekin
Entrevistas con agente clave

Emakumeak

Gazteak

Arkitektoak

Entitate kulturalak

Entitate ekologikoak

Entitate sozialak

Entitate ekonomikoak

Eskolak

Alkateak

## + Mapaketa kolektiboak
Mapeos colectivos





## + Galdetegi digitala
## Cuestionario online




## + Diagnostiko tailerra
## Taller de diagnóstico





# 02. Diagnostiko parte-hartzailea Diagnóstico participativo

**AMIA Analisia:** Aukerak, Mehatxuak, Indarguneak, Ahultasunak

| LURRALDEA ETA INGURUMENA | |
|---|---|
| I | Udalerriaren ingurumen-balio handia, azalera babestu eta urbanizaezin handia dagoelako.<br>Lur komunalen eta Auzolanen lanaren garrantzia ingurunea zaintzeko.<br>Natura errespetatu eta zaintzearen inguruan eraikitako nortasun soziala. |
| A | Etxebizitza berriak ugaritzea lurzoru urbanizaezinean.<br>Hondakinen kudeaketari, isurketei eta ibaien erabilerari lotutako ingurumen-arazoak.<br>Zailtasunak eta/edo gatazkak lur komunalen kudeaketan. |
| A | Lurralde pribilegiatuaren kontzientzia ingurune naturalarekin duen loturagatik.<br>Bidexka eta ibilbide historikoen iraunkortasuna, hiriguneak zeharkatu eta lurraldea lotzen duten ibilbide kulturalei lotuak.<br>Nazioarteko, estatuko eta autonomietako politikek birsorkuntzaren eta birgaitzearen alde egiten dute. |
| M | Sute-arrisku handiko eremua.<br>Jarduera turistikoak ingurunean duen eragina.<br>Lurraldearekin lotutako lanbideak galtzea. |

| GIZARTE COHESIOA ETA DEMOGRAFIA | |
|---|---|
| I | Biztanleria osoaren bilakaera egonkorra da.<br>Langabezia-zifrak txikiak dira, eta batez besteko errenta handia, estatuko beste udalerri batzuekin alderatuta.<br>Elkarte-sare aberatsa eta askotarikoa. Komunitatearekin inplikazio handia.<br>Nortasun-sentimendu handia. |
| A | Herrigune guztietan biztanleria zahartzen ari dela antzematen da. Migrazio-saldoa negatiboa da.<br>Biztanleen kontzentrazioa Elizondon. Elizondoko pertsonen eta gainerako herrien arteko pertzepzioen desberdintasuna. |
| A | Auzolanak kohesioa bultza dezake udalerrian. |
| M | Gune txikienetako etxebizitzak eta baliabideak familia eredu berrietara egokitzeko zailtasuna.<br>Sozializazio-espazioak galtzea |

| ETXEBIZITZA | |
|---|---|
| **I** | Etxebizitzen %26 birgaitu egin da 2010etik<br>Ondare-balio handiko bizitegi-eraikinak. |
| **A** | Etxebizitzen % 35 hutsik edo aldi baterako hutsik. Kopuru hori handitzen ari delaren ustea.<br>Alokatutako etxebizitzen portzentai txikia. Etxebizitza mugiarazteko oztopo soziokulturalak.<br>Etxebizitzen %10 egoera txarrean. |
| **A** | Etxebizitzen eraginkortasun energetikoa hobetzeko eta birgaitzeko laguntzak bideratzeko aukera.<br>Tamaina handiko etxebizitzak, eskakizun berrietara egokitzeko gaitasuna dutenak.<br>Hutsik dauden etxebizitzei neurri fiskalak aplikatzeko aukera<br>Etxebizitza publikoen eredu berriak. |
| **M** | Etxebizitza birgaitzeko zailtasuna: kostu handiak, ibarreko eraikuntzetara gutxi egokitutako bizigarritasun-araudia, ondare-araudi ez oso argia.<br>Etxebizitza turistikoen gorakadari lotutako espekulazioa. |

| PAISAIA ETA ONDAREA | |
|---|---|
| **I** | Ondare materialaren eta ez-materialaren balio handia.<br>Herrigune gehienen paisaia-balio handia, landa-ingurunearekin eta ingurune naturalarekin oso lotuta.<br>Ondare-elementu gehienak ondo kontserbatuta daude.<br>Herriguneetako paisaiari oso lotutako landaredia. |
| **A** | Herrigune handienetan eragin negatiboak dituzten guneak: kableak, zaborrak eta edukiontziak, etxebizitza kolektiboko hainbat eraikin, hainbat itxitura eta hesi.<br>Ondare interesa daukaten babestu gabeko elementuak: lixutegiak, kixulabeak, iturriak, harri lehorrezko hesiak.<br>Espazio publiko batzuen kontserbazio-egoera txarra. |
| **A** | Natura-inguruneari eta bailararen historiari lotutako paisaia propioa eta identitarioa zaintzeko eta ezagutarazteko interesa. |
| **M** | Ondare-eraikinak birgaitzeko zailtasunak.<br>Denborarekin okerrera egiten duten egoera txarrean dauden ondare-elementuak: hainbat jauregi, kisulabeak, lixutegiak, bunkerrak, zuhaitzak, bideak, etab. |

| MORFOLOGIA ETA LURRALDEAREN ERABILERAK | |
|---|---|
| I | Herriguuneen dentsitate handia<br>Espazio libreen, publikoen eta pribatuen interesa herrien egituran.<br>Eragin txikiko nekazaritza eta abeltzaintza erabileren interesa herriguneetan.<br>Plaza eta frontoiaren garrantzia topaleku bezela herrigune txikietan. |
| A | Centralismo de Elizondo<br>Eraikitako ehun sakabanatua. Hurbileko hiria sortzeko zailtasuna.<br>Elizondorekiko zentralismoa. |
| A | HJPBren jarduketek ematen duten aukera egungo bide-sarea hobetzeko |
| M | Landa-guneen eskakizunetara egokitu gabeko hiri-plangintza.<br>Errepideek herrigune batzuetan duten eragina. |

| ESPAZIO PUBLIKOA ETA MUGIKORTASUNA | |
|---|---|
| I | Espazio libreen sare egokia herrigune gehienetan.<br>Txoko berdeak eta naturarekiko kontaktua gune guztietan. |
| A | Autoaren mendekotasuna nukleo txikietan zein handietan. Inpaktua: aparkalekua, abiadura, gehiegizko trafikoa herrigune batzuetan.<br>Egokitu gabeko hainbat espazio publiko: naturalagoak, hobeto hornituak eta estaliak izatea eskatzen da.<br>Herrigune gehienetan ez dago bizikleta azpiegiturarik eta ez dago garraio publikorik.<br>Irisgarritasun txarra eta konektibitatea oinezkoentzako ibilbideetan. |
| A | Automobilaren eta oinezkoen arteko elkarbizitza birpentsatzeko aukera.<br>Herrigune handienetan kalitatezko eguneroko ibilbideak ezartzeko gaitasuna dago.<br>Espazio libreen egiturak aparkaleku-eredua birpentsatzeko aukera ematen du. |
| M | Espazio publikoa egokitu ez denez, hainbat kolektibo baztertzen ditu: dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat gutxi prestatuta dauden guneak, irisgarritasun gutxiko eremuak, gaizki argiztatuta dauden eremuak.<br>Trafiko astuna duten herriguneetan oinez mugitzeko arriskuak. |

| DOTAZIOAK ETA ZERBITZUAK | |
|---|---|
| I | Ekipamenduen ratio egokia. |
| A | Ekipamenduetara irisgarritasuna bermatzeko zailtasuna, zenbait herriguneen sakabanatzea eta dentsitate txikia dela eta.<br>Oinarrizko zerbitzuen falta nukleo txikienetan. Elizondok biltzen ditu zerbitzu gehienak.<br>Kultura eta osasun ekipamenduen falta. |
| A | Eguneroko ekipamenduaren garrantzia: hezkuntza, kirola eta erlijioa nukleoen garapenean.<br>Gutxiegi erabilitako espazioak, ekipamendu bihur daitezkeenak, ibiltaritza-formulekin edo erabilera polifunzionalekin. |
| M | Aldaketak kontsumitzeko eta ekoizteko ohituretan, herrigune txikienetan dendak eta zerbitzuak ezartzea zailtzen duena. |

| EKONOMIA | |
|---|---|
| I | Garatu den turismo-jarduera turismo jasangarriari eta naturari lotuta dago.<br>Hurbileko produktuak kontsumitzeko interesa. |
| A | Udalerritik kanpoko merkataritza erabiltzea.<br>Turismo-jardueraren garapenean dagoen desberdintasuna eta horri lotutako inpaktua.<br>Herrigune gehienetan jarduera ekonomiko dibertsifikaturik ez izatea. Gune txikienetan merkataritza- eta ostalaritza-jarduera galtzea.<br>Zerbitzuen sektorearen mendekotasuna eta lehen sektorearen egoera txarra.<br>Genero-aldea enpleguan eta lan eskaintza falta gazteentzat. |
| A | Hurbileko ekoizpen eta kontsumo moduak sustatzeko interesa eta aukera |
| M | Aldaketak kontsumitzeko eta ekoizteko ohituretan, herrigune txikienetan dendak eta zerbitzuak ezartzea zailtzen duena.<br>Turismo-jardueraren gehiegizko garapena eta eragin posibleak.<br>Ustiategi intentsiboetara aldatzea modu tradizional jasangarriagoak kaltetzen ari da.<br>Makroproiektuek inpaktu negatiboak izan ditzakete tokiko sarean. |

| DETERMINAZIO URBANISTIKOAK | |
|---|---|
| **I** | Egungo azpiegiturak hobetzeko premia eremu birjinetan jarduerak sahiesteko.<br>Egungo egiturak hobetzeko egokitasuna, eremu birjinetan jarduerak saihesteko.<br>Udal Planean bertan eraldatutako edo sailkatutako lurzoruetan jarduteko irizpidea, Plan Bereziko proposamenen jarduketa-tresna gisa. Udal Planak jarduera interesgarriak aurreikusten ditu jada, nahiz eta garatu izan ez diren. |
| **A** | Plan Orokor deseguneratua. Aurreikuspen agortuak.<br>Lurralde-eredu konplexua eta nukleo asko sakabanatuta dituena.<br>Antolakuntzako azpiegiturak eta egiturak ez dira hoberenak. Aldez aurreko proposamenak geldiaraztea. |
| **A** | Egikaritze-unitateak kudeaketa-eremu gisa berraztertzea, baliozkotzeko edo ez. Esparruak berroneratzeagatik ekarpenak egiteko aukera, eta ez garapen handiengatik.<br>Hirigune txikietan jarduera asistematikoak garatzen saiatzea, hiri-ehuna hobetzeko.<br>HJPBaren arabera desklasifikatu ezin diren lurzoruak dinamizatzea (karga ekonomikoen eta planteatutako antolamenduaren ebaluazioa (tipologia, etxebizitza kopurua). |
| **M** | Garatu gabeko lurzoru urbanizagarriko banaketa-eremuak. Plan Orokorrak gehiegizko lurzoru-kontsumo handia aurreikusten du.<br>Erregulazio egokirik gabeko turismoaren eragina.<br>HAPBren bidez desklasifikatu ezin diren eta trabatuta dauden lurzoruak birpentsatzea |

# 03. Helburuak eta hildo estrategikoak Objetivos y marco estratégico

## 01

### ETXEBIZITZA BIRGAITZEA
### REHABILITACIÓN DE VIVIENDA

ETXEBIZITZA PARKEA EGUNGO BIZIMODU ETA BEHARRETARA EGOKITZEA

ADECUACIÓN Y ADAPTACIÓN DEL PARQUE EDIFICATORIO EXISTENTE A LAS ACTUALES FORMAS DE VIDA Y



## 02

### EGUNEROKO BIZITZA ETA LANDATARTASUNA
### VIDA COTIDIANA Y RURALIDAD

HERRIGUNE BAKOITZEKO GERTUKO JARDUERARI ETA ONGIZATE KOLEKTIBOARI EUSKARRIA EMATEN DIOTEN BALDINTZAK HOBETZEA

MEJORA DE LAS CONDICIONES QUE DAN SOPORTE A LA ACTIVIDAD DE PROXIMIDAD Y AL BIENESTAR COLECTIVO EN CADA NÚCLEO



## 03

### PAISAIA ETA NATUR INGURUNEA
### PAISAJE Y ENTORNO NATURAL

PAISAIA ETA ONDAREA ZAINTZEA ETA HERRIGUNEEN ETA INGURUNE NATURALAREN ARTEKO HARREMANA HOBETZEA

CUIDADO DEL PAISAJE Y EL PATRIMONIO Y MEJORA DE LA RELACIÓN ENTRE LOS CASCOS Y EL ENTORNO NATURAL



# 01 ETXEBIZITZA BIRGAITZEA REHABILITACIÓN DE VIVIENDA

## ETXEBIZITZA PARKEA EGUNGO BIZIMODU ETA BEHARRETARA EGOKITZEA

| JARDUERA HILDOAK | AZTERTU BEHARREKO EKINTZAK |
|---|---|
| **01.L1** | Etxebizitza birgaitzea sustatzea |
| | **Lehentasunezko birgaitze gune** bat definitzea |
| | Eraikitako ondarea babesteko formulak bilatzea birgaitzea immobilizatu gabe |
| | Bitartekaritza, birgaitzeko babesa eta laguntza posibleak bideratzea. **Birgaitze-bulego** bat sortzea |
| **01.L2** | Etxebizitza berriak lehendik dauden eraikinetan eta herriguneetan garatzea erraztea |
| | **Etxebizitza handien banaketa** |
| | **Beheko solairuan etxebizitza** berriak, aproposak diren eremuetan |
| **01.L3** | Etxebizitza turistikoen erregulazioa |
| | Etxebizitza turistikoari eska dakizkiokeen hirigintza-baldintzak arautzea |
| | Bizitegi eta turismo erabileren arteko oreka mantentzeko neurriak. **Ostatu Turistikoa Arautzeko Udal Araudia** idaztea |
| **01.L4** | Etxebizitza hutsen eta bizitegi-potentziala duten eraikinen mobilizazioa sustatzea |
| | **Neurri fiskalak** etxebizitzaren mobilizazioa sustatu edo etxebizitza hutsa zigortzeko |
| | Bitartekaritza, birgaitzeko babesa eta laguntza posibleak bideratzea. |
| | **Etxebizitza hutsen eta erabiltzen ez diren beste eraikin batzuen inbentarioa** eta hauen baldintzak aztertzea |
| **01.L5** | Etxebizitzak irisgarritasun, eraginkortasun eta dimentsio premia berrietara egokitu daitezen erraztea eta sustatzea |
| | Eraikinen **eraginkortasun energetikoa** hobetzea eta energia berriztagarria autoekoizteko sistemak erabiltzea sustatzea |
| | Etxebizitzen **irisgarritasun** baldintzen hobekuntza sustatzea: etxebizitza kolektiboetako igogailuak, etab.. |
| | Eraikin erantsien erregulazioa |
| | Profil desberdinen beharretara egokitutako tipologia desberdinetako etxebizitzak sustatzea |
| **01.L6** | Etxebizitza babestuak edo interes sozialekoak eta etxebizitza alternatiboen ereduak sortzeko formulak bilatzea |
| | Hiri-lurzoruan dauden **lurzati hutsen** eta egikaritze-unitateen **garapena** sustatzea. Babestutako etxebizitzaren garapena baloratzea. |
| | Udal-jabetzako lurzoruak hautematea, **etxebizitza kooperatiboen ereduak** edo ESALek sustatutakoak garatzeko |
| | Interes soziala daukaten beste etxebizitza eredu batzuk sustatzea (gazteak, adinekoak) |

# 02 EGUNEROKO BIZITZA ETA LANDATARTASUNA VIDA COTIDIANA Y RURALIDAD

## HERRIGUNE BAKOITZEKO GERTUKO JARDUERARI ETA ONGIZATE KOLEKTIBOARI EUSKARRIA EMATEN DIOTEN BALDINTZAK HOBETZEA

| JARDUERA HILDOAK | AZTERTU BEHARREKO EKINTZAK |
|---|---|
| **02.L1** | **Oinezkoen ibilbideetan irisgarritasuna, konektibitatea eta segurtasuna hobetzea** |
| | **Herriguneetan oinezkoentzako ibilbideak egokitzea**: espazioa, ekipamendua, argiztapena, naturalizazioa |
| | **Zirkulazioarako espazio publikoa handitzea**: espaloiak handitu daitezkeen espazioak hautematea, segurtasunik gabeko bidegurutzeak ebaztea, garraiobideen batera egotea hobetzea, etab. |
| | Bide historikoak eta herriguneen arteko ibilbideak berreskuratzea eta egokitzea |
| | Ibilgailu astunen mugikortasuna birpentsatzea |
| **02.L2** | **Bide-sarea paketzea. Autoaren eragina murriztea eta garraiobide jasangarria sustatzea: bizikleta, garraio publikoa, auto partekatua** |
| | **Bideen hierarkizazioa,** bide motak, sekzioa eta diseinua definituz, ibilgailuen trafikoaren garrantziaren eta oinezkoen lehentasunaren arabera (bai herriguneetan, bai hauen artean). |
| | Aparcalekuak espazio publikoan eta pribaturan birpentsatzea. |
| | Trafikoa aldi baterako ixtea, oinezkoentzako eta txirrindularientzako ibilbide esklusiboak sortzeko (asteburuak, ordutegi zehatzak) |
| | Herriguneetan ibilgailuen abiadura murriztea |
| | Garraio kolektibo, publiko eta partekatuaren eredu berriak |
| | Oinezkoen eta bizikleten herriguneen arteko loturak eta azpiegiturak hobetzea |
| **02.L3** | **Eguneroko beharretara egokitutako topaguneak hobetu edo sortzea** |
| | **Erabilera publikoko espazio berriak sortzea**. Espazio publikoa handitzea, hondakin-espazioak eta orubeak gehituz edo eraikinak ordezkatuz. |
| | **Espazio publikoen kualifikazioa eta hobekuntza.** Naturalizatzea: drainatze iraunkorreko sistemak, zuhaitzak, biodibertsitaterako sistemak, eta azpiegitura berde eta urdineko beste soluzio batzuk. |
| **02.L4** | **Ekipamendu eta zerbitzuen hurbiltasuna hobetzea herriguneetan** |
| | **Gutxiegi erabilitako eraikinak egokitzea eta dibertsifikatzea** interes publikoko erabileretarako |
| | Ardatzen dinamizazioa (herrigune handienetan) eta hirugarren sektoreko, merkataritzako eta ekipamenduen nodo mistoak |
| | Gune txikienetan zerbitzu ibiltariak sustatzea |
| | Herriguneetan espazio polifuntzionalak antolatzea |
| | Nuevo equipamiento cultural |
| **02.L5** | **Nukleo bakoitzeko eguneroko eta hurbiltasuneko jarduera hobetzea** |
| | Etxebizitza kolektiboko **beheko solairuetan jarduera dibertsifikatzea** |
| | Etxebizitzei lotutako inpaktu txikiko nekazaritza eta abeltzaintza erabilerak landa-izaerako guneetan |
| | Erabilera publiko edo komunitarioko espazio libreak eta interes kolektiboa egokitzea eta zaintzea: Elizondoko baratze-eremua, erabilera publikoko eremu berriak lurzoru ez-publikoan |
| | Jarduera berriak sustatzea eta erraztea |
| **02.L6** | **Ingurunearen zaintzari lotutako jarduera ekonomiko iraunkorra sustatzea** |

# 03 PAISAIA ETA NATUR INGURUNEA PAISAJE Y ENTORNO NATURAL

## PAISAIA ETA ONDAREA ZAINTZEA ETA HERRIGUNEEN ETA INGURUNE NATURALAREN ARTEKO HARREMANA HOBETZEA

| JARDUERA HILDOAK | AZTERTU BEHARREKO EKINTZAK |
|---|---|
| **03.L1** | **Eremu publikoak diseinatzeko irizpideak** |
| | Itxituren erregulazioa |
| | Espazio publikoa eta erabilera publikoa diseinatzeko materialen definizioa |
| | Kableak lurperatzea eta aireko azpiegitura |
| **03.L2** | **Azpiegitura berde eta urdineko elementuak gehitu eta/edo babestea** |
| | Babestu beharreko espezieak antzematea |
| | Hiri-zuhaitzen eta naturalizazioaren irizpideak definitzea: drainatze iraunkorreko sistemak, zuhaitzak, biodibertsitaterako sistemak eta azpiegitura berde eta urdineko beste irtenbide batzuk. |
| **03.L3** | **Ondare balioa duten elementu bereziak zaindu eta babestea** |
| | Herriguneetan dauden **oroimen kolektiborako elementu interesgarriak babestea**: harri lehorreko hormak, iturriak, lixutegiak, kisulabeak |
| | Herriguneetatik kanpo dauden beste elementu batzuk babestea: kisulabeak, bunkerrak |
| | Kontserbazio egoera txarrean dauden eraikinak eta baliozko elementuak birgaitzea |
| | Ondare-balioa duten elementuak seinaleztatzea eta zabaltzea |
| **03.L4** | **Baliozko materialen berrerabiltzea sustatu eta erraztea** |
| | Eraikuntza eta eraispen materialen erregulazioa |
| | Eraikuntza materialen bankua: harria, zura |
| **03.L6** | **Baliabide eta hondakinen kudeaketa hobetzea eta ingurunea zaintzea** |
| | Saneamendu sarea hobetzea eta ibaiak babestea kutsatu ez daitezen |
| | Ibarreko hondakinen kudeaketa hobetzea |
| | Auzolanaren kudeaketa-ereduari buruz hausnartzea ingurunearen zaintzan |
| | Baliabide naturalak inpaktu turistikotik babestea |
| | Urte osoan zehar sastrakak kudeatzea suteak egon ez daitezen |

# 04. Proposamenak Propuestas

**4.1. Espazio publikoari buruzko proposamena**
Propuestas sobre espacio público

**4.2. Eraikuntzari buruzko proposamena**
Propuestas sobre la edificación

**4.3. Ekipamendu sareari buruzko proposamena**
Propuesta sobre la red de equipamientos

**4.4. Ondareari eta paisaiari buruzko proposamena**
Propuestas sobre patrimonio y paisaje

**4.5. Kudeaketa proposamena**
Propuesta de gestión

**4.6. HJPB mugatzeko proposamena**
Propuesta de delimitación PEAU

# 4.1. Espazio publikoa Espacio público

Bide-sarea eta espazio libreen sarea naturalizatu eta balioztatu, ingurumenaren kalitatea, erabileren bizikidetza eta espazioaren eguneroko erabilera hobetzeko.

## 4.1.1. Bide-hierarkia Jerarquía viaria

Zazpi bide motatako hierarkia bat proposatzen da, trafikoaren herriguneetan duen inpaktuaren eta inportantziaren arabera eta eguneroko ibilbideetan duten funtzioaren arabera.

1. Zeharbide nagusiak
2. Bigarren mailako bideak
3. Kale lokalak
4. Eguneroko kaleak
5. Sarbideak
6. Landa kaleak
7. Oinezkotzako kaleak



# 4.1. Espazio publikoa Espacio público

## Ebaketa-tipoak

Udal Planak kale berrietarako proposaturiko zabaleren berrikustea (8-9m) eta murrizketa, kasuaren arabera.

Proposatutako diseinuak kale-mota bakoitzerako erabilera egokien proportzioak eta banaketa planteatzen dituzte.

Ebaketak kasu zehatz bakoitzera egokitu behar dira, herrigune bakoitzaren beharrei erantzuteko.



# 4.1. Espazio publikoa Espacio público

## 4.1.2 Oinezkoen eta bizikletentzako ibilbideak
Itinerarios peatonales y ciclistas

### Eguneroko ibilbideak, eskola-bideak eta bide seguruak

Espazio publikoaren tratamendua landu eta moduen arteko bizikidetza eta bide-segurtasuna hobetzeko irtenbideak ezarri.

### Herriguneen arteko lotura bigunak eta bide historikoak

Ibilbideak hobetu herriguneetatik igarotzerakoan :

a) Espaloien jarraitasuna
b) Ibilbideen seinaleztatzea
c) Ibilbideen naturalizazioa
d) Oinarrizko altzariekin egoteko espazio txikiak prestatzea



### Herriguneen arteko bizikleta-konexioak

Posible denean bidegorri bereizi bat jarriko da guneen arteko bideetan. Landarediaren kokapenari arreta jarriko zaio, ibilgailuekiko loturarik gabeko zirkulazioa errazteko.

### Bizikleta-konexio hurbilak: Elizondo

Bizikleta-bide bereizien garapena ekipamendu eta zerbitzu nagusien arteko konexioak lehenetsiz.

# 4.1. Espazio publikoa Espacio público

## 4.1.5 Aparkalekua
## Aparcamiento

### Galtzada ondoko aparkalekua

Posible denean, oinezkoen ibilbidea eraikinen ondoan joango da, eta aparkalekua galtzadaren ondoan, ondo seinaleztatuta. Kalearen zabaleragatik ezin bada, aparkalekuak kentzea baloratuko da.

### Oinezkoentzako espazio libreetan aparkalekua

Resolver la proliferación de aparcamiento inadecuado en zonas de uso peatonal

### Aparkaleku-guneak

Aparkaleku-guneak diseinatzeko hainbat irizpide ezartzen dira:

a) Lurzoruan zoladura iragazkorrak erabiltzea
b) Landaredia eta zuhaitzak egotea
c) Paisaian inpaktuak murrizten dituen diseinua



*Problemática en Arizkun*



*Referencia aparcamiento permeable*

# 4.1. Espazio publikoa Espacio público

## 4.1.6 Jarduketak bide-sarean
Actuaciones sobre la red viaria

### Jarduketak sarearen ardatz-egituratzaileetan

**Egunero ibilbideak eta segurtasuna** hobetu, batez ere ardatz egituratzaileekin eta trafiko handiko bideekin bat datozenean.

- Zeharbideko oinezkoen irisgarritasuna hobetzea, Oronoz
- Zeharbideko oinezkoen irisgarritasuna hobetzea Erratzu
- Eskola bideen iristarritasuna hobetzea, Arizkun
- Plazaren inguruko segurtasuna hobetzea, Arizkun
- Zeharbideko oinezkoen irisgarritasuna hobetzea, Irurita
- Zeharbideko oinezkoen irisgarritasuna hobetzea, Etxerri
- Zeharbideko oinezkoen irisgarritasuna hobetzea, Elbete
- Eskola bideen iristarritasuna hobetzea, Almandoz





Ampliación de viario para mejora de la red peatonal, Erratzu

# 4.1. Espazio publikoa Espacio público

## 4.1.6 Jarduketak bide-sarean
Actuaciones sobre la red viaria

### Jarduketak beste ardatz interesgarri batzuetan

**Jarduera-ardatzak eta eguneroko ibilbideak bultzatzeko**, potentzial komertziala, turistikoa edo eguneroko duten kaleetan jarduketak proposatzen dira. Esku-hartze horien artean, oinezkoentzako kaleak ezartzea edota kaleen eremu desberdinak berrantolatzea daude.

- Mauricio Berecoechea kalean jarduera-ardatza, Elizondo
- Braulio Iriarte kalean jarduera-ardatza, Elizondo
- Giltxaurdi kalean jarduera-ardatza, Elizondo
- Mendinueta kalean eskola bidea, Elizondo
- Plaza, eskola eta frontoiaren arteko ibilbide alternatiboa, Oronoz








Eje de actividad C/Mauricio Berecoechea, Elizondo

# 4.1. Espazio publikoa Espacio público

## 4.1.6 Jarduketak bide-sarean
Actuaciones sobre la red viaria

### Jarduketak etxebizitza kolektiboko blokeen ondoko espazio libreetan

Egindako lagapenen eta etxebizitza kolektiboko blokeei lotutako espazio librearen tratamenduaren ondorioz, oro har, urbanizazio-kalitate eskaseko eta funtzionaltasun gutxiko espazioak sortu dira. Proposatzen da:

- Udal Planak proposatutako **lurzoruen eskuratzeak** baloratu eta, hala badagokio, dagozkion eskuratzeak egitea.
- **Lerrokaduren aldaketa** espazio librea hobetu ahal izateko bide-sarera sartuz
- Espazioaren **tratamendua hobetu** honako helburuekin:
  1. Espazio libreak naturalizatzea
  2. Aparkalekuak berrantolatzea
  3. Egoteko erabilerak hobetzea









Calle Iturriotz Taldea, Oronoz

# 4.1. **Espazio publikoa** Espacio público

## 4.1.6 Jarduketak bide-sarean
Actuaciones sobre la red viaria

### Paisaia-balioa duten kaleen zaintzea eta finkatzea

Udal Planak 9 metroko kale berriak ezartzen zituen etorkizuneko garapenetarako. Paisaia edo ondare balioa duteen kaleen lerrokadurak mantentzea proposatzen da, hauen balio zaintzeko. Honako kasuak antzeman dira:

- Zeharkako kalea, Bozate
- Zeharkako kalea, Zuaztoi
- Beste batzuk









Calle interior de Bozate

# 4.1. Espazio publikoa Espacio público

## 4.1.6 Jarduketak bide-sarean
### Actuaciones sobre la red viaria

### Konexio eta bide berriak irekitzea

Herrigune batzuetan, hiri-garapenak loturarik gabeko guneak sortu ditu.

Ibilgailuen **trafiko-sarearen edo oinezkoen sarearen funtzionamendua eta eguneroko ibilbideak erraztu** eta hobetu ditzaketen konexio berriak proposatzen dira.

| Núcleo | Conexión | Tipo De viario propuesto | Uso de suelo actual | Observaciones/ Motivación |
|---|---|---|---|---|
| Erratzu | C/Ubidea-Carretera de Francia | Peatonal o rodado | Parcela privada sin edificar. Uso agrario | Cohesión de la trama urbana |
| Erratzu | C/Ubidea-C/ Utselei | Peatonal | Parcela privada sin edificar. Uso agrario | Cohesión de la trama urbana y los recorridos peatonales |
| Oronoz | Trasera Bomberos | Peatonal | Parcela pública (Gobierno de Navarra) sin edificar. | Conexiones transversales a la travesía principal |
| Elizondo | Apertura de viario entre C/Mendinueta y C/Xalbador | Calle local | Parcela privada sin edificar. Uso agrario. Afectada por AR-2 | Cohesión y permeabilización de la trama urbana |
| Elizondo | C/Giltxaurdi y C/ Pedro de Axular | Peatonal/ Cotidiana | Dotacional | Cohesión y permeabilización de la trama urbana |
| Elizondo | Conexión Plaza Saskaitz con Avda. Diputación | Peatonal | Residencial. | Cohesión y permeabilización de la trama urbana |



Nuevos viarios Erratzu

## 4.1. **Espazio publikoa** Espacio público

### 4.1.6 Jarduketak espazio publikoaren sarean
### Actuaciones sobre la red de espacios públicos

**Espazio publiko txikiak hobetzea eta sarean sartzea**

Espazio publiko txikien (< 200 m2) funtzioa indartzeko jarduketak proposatzen dira, lurzorua eskuratuz, intereseko elementuak sendotuz edo berrurbanizatzeko esku-hartzeen bitartez.

- Lixutegiaren ingura, Bozate
- Artzekoerreka erreka, Arraioz-Mardea
- Errepidearen ondoko espazioa Antzaborda
- NA-2540 Zeharbidearen ondoko espazioa, Irurita
- Santa Cruz kalearen ondoko espazioa, Elbete
- Zeharbidearen ondoko espazioa, Etxerri
- Jolasgunea lurzati pribatuan, Lekaroz
- Iturria eta egoteko tokia, Oronoz-Mugairi
- Lixutegia, Ziga









Espacio junto a lavadero, Bozate

# 4.1. Espazio publikoa

## 4.1.6 Jarduketak espazio publikoaren sarean

Actuaciones sobre la red de espacios públicos

### Egoteko espazio publikoak hobetzea eta sarean sartzea

Egoteko espazio bezala potenzial handia duten hainbat gune hautematen dira (200>500m2). Hobekuntza integraleko jarduerak proposatzen dira horietarako.

- Paularena, Elizondo
- Giltxaurdi, Elizondo
- Baztanberri, Elizondo
- Saskaitz, plaza Elizondo
- Plaza eta frontoiko parkearekin lotura, Erratzu
- Elizako plaza, Erratzu
- Elizaren ingurua, Arraioz-Mardea
- Frontoiaren ingurua, Amaiur
- Plaza, Oronoz-Mugaire
- Plaza, Ziga
- Plaza Buru, Lekaroz









Zona calle Giltxaurdi, Elizondo

## 4.1. Espazio publikoa

### 4.1.6 Jarduketak espazio publikoaren sarean

Actuaciones sobre la red de espacios públicos

#### Egoteko espazio berriak irekitzea

Egoteko espazio publikoen gabezia antzematen den guneetan.

- Plaza edo egoteko espazio txiki bat sortzea, Zuaztoi
- Aparkalekua plaza gisa egokitzea, Almandoz
- Egoteko espazioa Marde kalean, Arraioz-Mardea
- Egoteko espazio txiki bat sortzea, Aintzialde






Habilitación de parking como plaza, Almandoz

# 4.1. Espazio publikoa

## 4.1.8 Jarduketak berdeguneen sarean
Actuaciones sobre la red de zonas verdes

### Azpiegitura berde eta urdina

**Zeinbat eguneroko kaleetan korridore berdeak sustatzea,** zuhaitzak, ur-laminak, errekak eta eremu bioanitzak barne hartzen dituzten diseinuen bitartez.

**Naturaren zaintza sozialaren** ereduen kogestio-estrategien garrantzia nabarmentzen da, batez ere nukleo txikienetan.

Paisaia eta natura balio handia duten lurzatietan zenbait elementu babestea proposatzen da, hala nola tamaina handiko zuhaitzak, lorategi bereziak eta abar.




### Diseinu-irizpideak

**Helburuak:**

1. Ingurumen-kalitatea eta erosotasuna hobetzea
2. Hurbileko materialen eta material jasangarrien erabilera sustatzea
3. Gune bakoitzeko paisaia zaindu eta hobetzea

# 4.2. Eraikuntza Edificación

## 4.2.1. Ehun eta eraikuntza tipologiak
## Tipologías de tejidos y de la edificación

### Ehun-tipologiak

**1. Herrigunea**
Izaera trinkoa eta erabilera-aniztasuna indartzea bilatuko du. Elizondo ete herrigune ertainen alde zaharra.

**2. Landa-gunea**
Herrigune txikietako alde zaharra, landa-izaera nabarmena dutenak (Almandoz, Berroeta, Zigaurre, Bozate, Gorostapolo).

**3. Nukleo sakabanatua**
Lurzatietan isolatutako eraikin tradizionalez osatutako herriguneak, nukleo trinkorik osatzen ez dituztenak (Aintzialde, Iñarbil, Zuaztoi, Etxerri).

**4. Trantsizioa**
Ehun mistoak, konposizio askeko eraikin eta etxebizitza kolektiboko tipologia desberdinez osatuak, batez ere herriguneen kanpoaldean.

**5. Zabalgunea**
Etxebizitza kolektiboko bloqueak eta ekipamenduak garatuta guneak, nagusiki nukleo handienetan kokatuak (Elizondo, Oronoz).



# 4.2. Eraikuntza Edificación

## 4.2.1. Ehun eta eraikuntza tipologiak
Tipologías de tejidos y de la edificación

### Eraikuntza-tipologiak

**1. Tipologia Tradizionala**

**1A. Etxebizitza tradizionala**
1950 baino lehenagoko eraikuntza zaharreko etxebizitzak, gehienak 1900 baino lehenagokoak diren arren.



**1B. Estilo tradizionaleko etxebizitza**
Ohiko tipologiari jarraitzen diote, nahiz eta 1950etik aurrera eraikitakoak izan.



**1C. Estilo tradizionaleko etxebizitza kolektiboa**
Etxebizitza kolektiboko eraikuntzetara egokitutako tipologia tradizionala, 1980tik aurrerako eraikuntzetan.



**2. Konposizio askeko familia bakarreko edo bi familiako tipologia**



**3. Konposizio askeko tipologia kolektiboa**



## 4.2. Eraikuntza Edificación

### 4.2.2. Bizitegi-eraikuntzari buruzko jarduketak
Actuaciones sobre la edificación residencial

#### Eraikuntzaren kontserbazioa

- Antolamenduz kanpokotzat joko dira eraikin desegokiak.
- Ezarritako eraikinak finkatuko dira

#### Eraikuntzaren egokitzapena

- Eraikin handiak hainbat etxebizitzatan banatzea erraztea, etxebizitza horiek erabilera eta ondare babesteko irizpideak betetzen badituzten bitartean (etxebizitzen tamainaren eta solairu bakoitzeko etxebizitza-kopuruaren arabera).

- Teilatupeko espazioak etxebizitza gisa gaitzeko aukera.



#### Hiri-lurzoru finkatugabeko eraikuntza berria

| | |
|---|---|
| **Casco urbano** | Favorecer el tejido denso y compacto<br>Generar nuevas alineaciones a calles princi-pales<br>Favorecer el carácter tipológico de vivienda tradicional (1A,1B) |
| **Casco rural** | Favorecer el tejido denso y compacto<br>Generar nuevas alineaciones a calles princi-pales<br>Favorecer el carácter tipológico de vivienda tradicional |
| **Núcleo disperso** | Favorecer el carácter tipológico de vivienda tradicional |
| **Transición** | |
| **Ensanche** | Definir, junto con el proyecto edificatorio, el espacio libre circundante, garantizando la buena calidad del espacio. |

# 4.2. Eraikuntza Edificación

## 4.2.2. Jarduketak bizitegi-eraikuntzan
Actuaciones sobre la edificación residencial

### Eraikuntza birgaitzea eta berroneratzea

**Irisgarritasuna**

- **Igogailurik gabeko etxebizitza kolektiboak**. Igogailuak instalatzeko sistemak planteatzea, behar izanez gero azalera komunak, espazio libreak edo jabari publikoko espazioak okupatuz. Azalera horiek bolumen eraikigarrirako eta lerrokaduretarako ez zenbatzea planteatu da.

- **Familia bakarreko edo bi familiako etxebizitza**, arkitektura-oztopoak kentzea ahalbidetzen duten konponbideak ezartzen laguntzeko.

**Energia-eraginkortasuna**

Bailarako eraikin gehienek ondare eta paisaia balioa dutenez, honako jarduketa hauek proposatzen dira::

1. Eranskinei lotutako energia ekoizteko sistemak ipintzea.

2. Neurri onuragarriak barne-isolamenduko sistemak eta irisgarritasunarekin lotutako jarduketetan, azalera eraikia zenbatzean edo eraikigarritasunean.

### Eranskinak

Eranskinen kokapena arautzu lurzati bakoitzaren ezaugarri espezifikoen arabera, honako helburuekin:

- Etorkizunean hobekuntza-jarduerak mugatu ez ditzaten.
- Eranskinetan energia ekoizteko sistemen instalazioa erraztea.

### Egurtegiak

Egurtegiaen materialtasuna, dimentsioak eta itxiturak erregulatzea.

### Beheko solairuak

Lurzoru finkatugabean eraikuntza berrien eraikinen barruan etxebizitzan bakoitzeko aparkaleku bat ezartzen duen Udal Planaren araua aldatzea.

Aparkalekua lurzatiaren atzekaldean kokatzea sustatzea, e**spazio publikoan eragin zuzena duten garajeak sahiestuz**.





# 4.2. Eraikuntza Edificación

## 4.2.2. Ekoizpen-ehunari buruzko jarduketak
## Actuaciones sobre el tejido productivo

### Merkataritza eta zerbitzu jarduera

- Beheko solairuen eraldaleta sustaztea merkataritza-lokaletara interesagarriak diren ardatzetan, bizitegi-erabilerara bihur daitezen sahiestuz.
- Oinarrizko jarduera ekonomikoa bultzatu dezaketen espazio dotazionalak prestatzea.

### Turismo jarduera

- Hirugarren sektoreko erabilera gisa ezartzea, beraz, ezin izango da dagokion eraikuntzaren % 30 baino gehiago izan (erabilera onargarriak), bizitegi-erabilera babesteko.
- Bizitegi-lurzoruan hotelak debekatzea.
- Etxebizitza guztietarako **bizigarritasun-irizpideak** ezartzea.



# 4.3. Ekipamendu sarea Red de equipamientos

Baztango ekipamendu-sareak, oro har, **ratio egokiak** ditu, baina herriguneen egitura sakabanatua dela eta, **gabeziak ditu hauen irigarritasunari dagokionez.**

1. Ekipamendu erabilera duten erakinak gehitu eta finkatu.

2. Facilitar la adquisición de edificaciones en desuso

    - Laxoa Plazan eraikina, Irurita
    - Errota zaharra, Erratzu







# **4.4. Ondarea eta paisaia** Paisaje y patrimonio

## 4.4.1. Ondarearen babesa

### Eraikinen eta lursailen babesa

Udalerriko oroimen kolektiboaren parte diren **balio arkitektonikoko elementuak** (lixutegiak, kisulabeak, etab.):

- Baliozko eraikuntzak **finkatzea.**
- **Lerrokadurak aldatu** espazio publikoan sartzeko**.**

**Eraikuntzen eta lurzatien** babesa:

- Udal Planak jasotzen ez dituen elementu interesgarrien babesa.
- Eraldaketak izan dituzten eta jada izaerarik ez duten elementuen babes-maila murriztu edo kendu.
- Interesa duen elementuaren lurzatia babestea, bereiziezina den kasuan.




### Harri lehorreko hormen babesa

- Harrizko horemen babesa.
- Lerrokaduren egokitzapena egungo herriguneen izaera errespetatzeko.
- Harri lehorra itxitura berrietarako eraikuntza-material gisa sustatzea.



# 4.4. Ondarea eta paisaia Paisaje y patrimonio

## 4.4.1. Paisaiaren zaintza

### Herri-paisaia

Eraikinek eta espazio publikoak osatzen duten multzoaz gain, interesgarriak dira Bidasoa ibaiari lotutako tokiak, merkataritza-ardatzak eta herrigune barnean dauden nekazal-paisaien presenzia. Paisaian eragina duten elementuei lotutako honako jarduerak proposatzen dira:

- Berdeguneen jarraitutasuna sustatzea
- Zenbait eremutan kableen lurperatzea baloratzea.
- Merkataritza-paisaia zaintzea
- Lursailak ixteko irizpideak berrikusi, material diskordanteen ugaritzea eta itxituren gehiegizko altuera saihestuz, ikusgarritasuna eragotzi ez dezaten.

### Landa-guneetako paisaia eta trantsizio-paisaiak

**Lurzatien mugak**
Itxitura tradizionalen balioa babesteko eta espazio publikoaren baldintzak hobetzeko Udal Planak ezartzen dituen irizpideak berrikustea.

**Naturalizazioa**
Landare-soluzioak, zuhaitzak, igokariak eta abar inplementatzea sustatuko da.

## 4.4.1. Materialak

Paisaiaren babesari eta baliabideen erabilera iraunkorragoari erantzuten dioten diseinu-irizpideak eta eraikuntza-sistemas proposatzen dira.





## 4.4. Kudeaketa proposamena Propuesta de gestión

1. **Lehentasunez zaharberritu beharreko eremuaren adierazpena** laguntzen eskurapena eta kudeaketa errazteko.

2. **Kudeaketa Bulegoaren irekiera,** Estatuko Etxebizitza Planaren eta Nafarroako Gobernuaren laguntzak bideratzen laguntzeko, elkarrekin finantzatzeko programarekin batera.

3. **Ekimen publikoko ekintzak.**
Lehentasunezkoak:
    - Etxebizitza publikorako eraikuntza eta/edo lurzorua eskuratzea.
    - Ekipamenduentzako eraikin edo lurzoruak eskuratzea.
    - Titulartasun publikoa duten ondare-elementuak birgaitzea.

4. **Kudeaketa-formulak**

Jarduera zehatzak hiri-lurzorura mugatzen direla eta lurzoru horretan hainbat jarduketa-mota planteatzen direla oinarri hartuta, ukitutako lurzoruak kudeatzeko mekanismoak zehazten dira, eta, oro har, honako hauetan sistematiza daitezke:

- Urbanizazioak finkatutako hiri-lurzorua. Desjabetzea.
    - Desjabetzea
    - Zortasunak eratzea
    - Hitzarmenak

- Etxebizitza berriak sortzea lurzoru eskuratzeak dakartza, neurri txikiagoan edo handiagoan. Hainbat egoera gerta daitezke.

    1. Garapen berriak sortzea, Udal Planak jada sailkatutako lurzoruetatik abiatuta; lurzoru horiek ez dira garatu, eta kudeaketa-eremuetan (EB) sartuta daude.

    2. Etxebizitza berriak formalizatzea, indarrean dagoen Udal Planaren "**Urbanizazio finkaturik gabeko hiri-lurzoruan**"

    3. **Zatitzeko aukera** duten etxebizitza handiak. Baimen hori beharrezko lurzoruen eskuratzearen baldintzapean jartzea proposatzen da.

    4. **Zuzkidura-jarduketak,** hau da, urbanizatuta egonik eraikigarritasuna handitzen zaien lurzatiak. Kasu honetan, lurzoru eskuratzeak NLLren 98. artikulukoak dira.

# **4.4. Mugaketa proposamena** Propuesta delimitación PEAU

HJPB honen helburua Baztango herriguneak hobetzea eta babestea izanik, proposatutako muga **herriguneetan** zentratzen da.

Garapen berrien ondoriozko hiri-lurzoruaren muga sartzen da eremuan. Hortik kanpo geratzen dira:

- Soilik erabilera industriala duten eremuak
- Garatu gabeko banake-areak






> Eranskina: Proposamen planoak herriguneka









# EkintzakHJPBtik kanpo Acciones fuera del PEAU

## 01 ETXEBIZITZA BIRGAITZEA REHABILITACIÓN DE VIVIENDA

| | |
|---|---|
| 1L1 | Eraikitako ondarea babesteko formulak bilatzea birgaitzea immobilizatu gabe. |
| | Bitartekaritza, birgaitzeko babesa eta laguntza posibleak bideratzea. Birgaitze-bulego bat sortzea |
| 1L3 | Bizitegi eta turismo erabileren arteko oreka mantentzeko neurriak. Ostatu Turistikoa Arautzeko Udal Araudia idaztea |
| 1L4 | Neurri fiskalak etxebizitzaren mobilizazioa sustatu edo etxebizitza hutsa zigortzeko |
| | Bitartekaritza, birgaitzeko babesa eta laguntza posibleak bideratzea. |
| | Etxebizitza hutsen eta erabiltzen ez diren beste eraikin batzuen inbentarioa eta hauen baldintzak aztertzea. |
| 1L5 | Profil desberdinen beharretara egokitutako tipologia desberdinetako etxebizitzak sustatzea. |
| 1L6 | Interes soziala daukaten beste etxebizitza eredu batzuk sustatzea (gazteak, adinekoak). |

## 02 EGUNEROKO BIZITZA ETA LANDATARTASUNA VIDA COTIDIANA Y RURALIDAD

| | |
|---|---|
| 2L1 | Bide historikoak eta herriguneen arteko ibilbideak berreskuratzea eta egokitzea |
| | Ibilgailu astunen mugikortasuna birpentsatzea |
| 2L2 | Trafikoa aldi baterako ixtea, oinezkoentzako eta txirrindularientzako ibilbide esklusiboak sortzeko (asteburuak, ordutegi zehatzak) |
| | **Herriguneetan ibilgailuen abiadura murriztea** |
| | **Garraio kolektibo, publiko eta partekatuaren eredu berriak** |
| | **Oinezkoen eta bizikleten herriguneen arteko loturak eta azpiegiturak hobetzea** |
| 2L4 | Ardatzen dinamizazioa (herrigune handienetan) eta hirugarren sektoreko, merkataritzako eta ekipamenduen nodo mistoak |
| | Gune txikienetan zerbitzu ibiltariak sustatzea |
| | Herriguneetan espazio polifuntzionalak antolatzea |
| | Kultura ekipamendu berria |
| 2L6 | Jarduera sozioekonomikoan berrikuntza bultzatzea: ekintzailetzarako eta enpresa berriak sortzeko guneak, industria jasangarriak eta energia berriztagarriak, etab. |
| | Gazteak erakartzeko gai izango den nekazaritza eta abeltzaintza sektore jasangarria sustatzea |
| | Nekazaritza estentsibo eta ekologikorako baldintzak hobetzea: kanadar pasabideak, hesiak. |
| | Turismo iraunkorraren eta orekatuaren eredua sustatzea |
| | Borden erabilera eta okupazioa |
| | Herri-lurren kudeaketa hobetzea |
| | Coworking guneak sortzea eta Interneteko konexioa hobetzea, telelana errazteko |

## 03 PAISAIA ETA NATUR INGURUNEA PAISAJE Y ENTORNO NATURAL

| | |
|---|---|
| 3L3 | Herriguneetatik kanpo dauden beste elementu batzuk babestea: kisulabeak, bunkerrak,... |
| | Kontserbazio egoera txarrean dauden eraikinak eta baliozko elementuak birgaitzea |
| | Ondare-balioa duten elementuak seinaleztatzea eta zabaltzea |
| 3L6 | Saneamendu sarea hobetzea eta ibaiak babestea kutsatu ez daitezen |
| | Ibarreko hondakinen kudeaketa hobetzea |
| | Auzolanaren kudeaketa-ereduari buruz hausnartzea ingurunearen zaintzan |
| | Baliabide naturalak inpaktu turistikotik babestea |
| | Urte osoan zehar sastrakak kudeatzea suteak egon ez daitezen |



# Eskerrik asko!